

Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO URRIAREN 27AN **GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa (Covid19gatik etxean isolamenduan dagoenez, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 46.3 puntuan oinarrituz alkateak telematikoki parte hartu du batzar honetan)

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Olatz de Miguel Arnaiz.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/10/16KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2020ko urriaren 16ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- KULTURAKO 2020KO HAINBAT DIRULAGUNTZEN 2. ZATIA ORDAINTZEA.

ESPEDIENTEARI BURUZKO DATUAK

Espedienteak: Alex Tello (KE.01/2020-0014)
Noaua! Kultur elkarteak (KE.01/2020-0028)

IKUSIRIK


2020ko urtarrilaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko irailaren 19an egindako bilkuran, 2020eko kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, talde hauek ekintzak antolatzeko emandako dirulaguntza modu honetara justifikatu dute:

Alex Tello

Ekintzak	Onartutako gastua	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
1 Antzerkia "Birritan bortxatua"+ Afalosteko kontzertua	2.078,00 €	1.918,00 €	1.438,50 €	Gastua: 1.918,00€	479,50€
Guztira					479,50 €



Usurbilgo Udala

Noaua! Kultur Elkarte

Ekintzak	Onartutako gastua	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
38. Inauteriak 2020	3.500,00 €	3.325,00 €	2.493,75 €	Gastua: 4.362,78€	831,25€
Guztira					831,25 €

ETA KONTUAN HARTURIK

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2020kultur egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak (GAO, 2020/01/07).
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO, 2020/01/20).
- Kontu hartzailearen ziurtagiria
- Kultura Teknikariaren txostena

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei kultura arloko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintzak	Ordainketa
Alex Tello	1	479,50 €
Noaua! Kultur Elkarte	38	831,25 €

Bigarrena: Kultura Alorreko dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03.2020 (A 6-2020)

Hirugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Laugarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:50etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.